

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK



JUAN MARI ABURTO RIKE
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



ejaj
pnv

4. KULTURA ETA KIROLA

Bilbok **kultura jarduera zabala du urteko 365 egunetan (“Bilbao Kultura 365”)**, eta horrek, bilbotarren gozamina areagotzeaz gain, hiriko dinamika turistikoei ere eragiten die, kalitatezko turismoa erakarriz, gure kultura eta nortasunari buruzko jakin-minak bultzatuta. Urterik urte, Udalak 2.000 kultur ekitaldi baino gehiago antolatu edo babesten ditu, **kultura Bilboko auzo guztietara iristea erraztuz**. Kultura eta sormen industriak ere sektore ekonomiko garrantzitsua bilakatu dira, bertako ehun ekonomikoaren % 6 eta enpleguaren % 5 inguru suposatzen dutelarik.

Azken 4 urteotan, aurrera egin dugu Bilbo kultura hiriburutzat posizionatzeko ahalleginean. Aurrerapauso sendoak eman ditugu giltzarrizko ekipamenduak handitu eta berritzeko; hala nola, Arte Ederren Museoa eta Euskal Museoa. Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolaren sorrera garrantzi handikoa izan da kultur adierazpideei lotutako izaera publikoko hezkuntza arautua eskaini ahal izateko. Inauguratu eta 20 urte geroago, Bilboko Guggenheim Museoa bisitariei buruzko errekorrak hobetzen jarraitu du. Horrez gain, hainbat kultur jarduera babesten jarraitu dugu, horietako asko gure nortasun kulturalari lotutakoak, ezinbesteko osagaia baitira gure hiriaren dinamismoa kulturalari eusteko. Hori guztiori, hiri osoan nahiz auzoka, kaleko antzerki programak eta literatura nahiz euskararen arloko jarduerak bultzatuz.

Hauexek dira kultura arloko erronkak datozen 4 urteotarako: alde batetik, **gure kultur eskaintzak nazioarteko izaera hardiagoa har dezala sustatzea**, eta bestetik, **sormen-jarduera horrek guztiak jarduera ekonomikoan inpaktu handiagoa izan dezala lortzea**. Betiere partaidetzan eta lankidetzan oinarritutako kultur politika baten barruan eta Bilboko herritarren nahiz hiriko sortzaile eta kultur eragileen beharrak kontuan hartuta.

4. KULTURA ETA KIROLA

Kirolari dagokionez, “Kirolaren Plan Estrategikoa” landu da, San Mameseko kiroldegi berria eraiki da eta kirolaren bidez inklusioa sustatzeko jarduera zabala garatu da. Gainera, kirol taldeei laguntzeko irizpideak hobetu dira, herri kirolak bultzatu dira eta adinekoen ariketa fisiko sustatu da Barrutietako Udaltegietan, elkarteen lokaletan nahiz espazio publikoan.

Datozen 4 urteetarako helburu nagusia, **kirola aisialdi osasungarriaren mesedeko tresna estregikoa bihurtzen jarraitzea** da, kirol instalazio merkeak eta kalitatezkoak adin guztietako pertsonen eskura jarritz.

4.1- KULTURA

HELBURUA

Kultura Bilbon modu integralean garatzea, ikuspegi bikoitzetik begiratuta: herritarren gozamen eta aberaste pertsonalerako tresna bezala, kultura hiriko auzo guztietara hedatuz, eta bertako ekonomia dinamizatzeko jarduera bezala.

NEURRIAK

1. Hiriko “Kultura Plana” lantzea giltzarrizko eragile guztien parte-hartzeaz, nazioartean dugun kultura-hiriaren irudia zabaltzeko, gure aktibo kulturalen balioa nabarmentzeko, jarduera berriak erakartzeko eta Kultura eta Sormen Industrien garapena bultzatzeko.
2. Bilboko Arte Ederren Museoa handitzen laguntzea, bertako zein nazioarteko erreferente museistiko bezala.
3. Bilboko Udalak Guggenheim Bilbao Museoarekin duen lotura indartzea, hiriaren ikonoa eta motor ekonomiko eta kulturala den heinean.
4. Bilboko kultur eskaintza dibertsifikatzen jarraitzea, bereziki antzerkian, zineman, musikan, pinturan, eskulturan, dantzan, argazkilaritzan, komikian eta abarretan.

4. KULTURA ETA KIROLA

5. Kultur eskaintza nazioartekoagoa erakartzea, beste hiri batzuekin sinatutako kultur akordioen bitartez. Garrantzizko kultur ekitaldiak erakartzea bertako herritarren gozamenerako nahiz turismo kultural iraunkorraren garapenerako.
6. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren protagonismoa indartzea, hiriko kulturaren osagai dinamizatzaile bezala.
7. Arriaga Antzokiaren ekoizpen propioa eta nazioarteko proiektzioa bultzatzea.
8. Euskal Museoa handitzeko eta berritze museistiko eta museografikoa bultzatzeko lanei ekitea, gure historia, kultura eta nortasuna ezagutu eta bizi nahi dutenentzako erreferentziazko eremu bihurtzeko asmoz.
9. Barrutietako Udaltegien kultur jarduerak eta ekitaldiak indartzea eta kultura auzoetara hedatzea.
10. BilbaoArte eta Harrobia bezalako instrumentuen potentzialtasunaz baliatzea kultur sorkuntza berritzaileagoa bultzatzeko.
11. Pabellón 6 handitu eta bertako ekipamendua hobetzea.
12. BilbaoArte handitzea.
13. Bilbao Eszena handitzea.
14. Gure nortasunaren elementuei lotutako kultur eskaintza indartzea (Aste Nagusia, Basque Fest, auzoetako kultur ekitaldiak,...).
15. Hiriko kultur eskaintzaren barruan dauden kulturantzazko elementuak sustatzea.
16. Bilbao Musikaren jarduera bultzatzea hirian dagoen prestakuntza musikaleko eskari gero eta handiagoari erantzuteko.
17. Bilboko Orkestra Sinfonikoa (BOS) hiriko musika erreferentzetzat sustatzea.
18. Bilboko Udal Musika Banda eta Txistulari Banda bultzatzea, hirian presentzia handiagoa izan dezatela erraztuz.
19. Gure hiriko lehen lerroko kultur eragileen ekimenak babestea; hala nola, Bilbao Opera OLBE Elkarte, Bilboko Koral Elkarte, Filarmonikoa,...

4. KULTURA ETA KIROLA

4.2- KIROLA

HELBURUA

Kirola aisialdi osasungarriaren mesedeko tresna estragikotzat bultzatzea, kirol instalazio merkeak eta kalitatezkoak adin guztietako pertsonen eskura jarritz.

NEURRIAK

1. Kiroldegietarako eta Udalaren bestelako kirol ekipamenduetarako urte anitzeko inbertsio eta mantentze-lanen plana.
2. Etxetxua Plazako Pabilioirako kirol erabil berriak aztertu eta diseinatzea.
3. Kirol taldeekin lankidetzan jardutea udal esparruen lagapena egiteko, beraien jarduerak garatzeko aukera izan dezaten.
4. Kirol ikuspegia hirigintzan zein espazio publikoan modu antolatuan sartzea.
5. Espazio publikoan dagoen kirol ekipamenduen eskaintza handitzea.
6. Kirol ekipamenduak kudeatzeko eredu berriak esploratzea.
7. Udal kiroldegietako igerileku estaliak uztailean irekitzeko programa pilotua garatzea.
8. Atxuriko Kiroldegiaren balizko handitzeari buruzko azterlana.

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK